

Formazioa

(aurrez-aurre, online eta irekia)

IKAS-EGOERAK PROGRAMATZEN IKASI

Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren
bidez (PBI)

Mikel Fernández Sánchez



Justifikazioa:

Gaur egun Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) bezalako metodologia aktiboak aintzat hartzen dira ikasleen funtsezko konpetentziak garatzeko duten gaitasunagatik. Hala ere, ikastetxeetan egunerokoan aplikatzea ez da ohikoa oraindik. Ikasgela askotan, testuliburuaren erabilera tradizionala eta ia esklusiboa nagusitzen da, eta ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua sustatzeko aukera mugatuz.

Proiektuen bidez lan egiteak askotan ziurgabetasuna sortzen du irakasleen artean. Formazio honek erronka horiek gainditzeko prestakuntza eta laguntza eskaintzea du helburu. Ikas-egoerak diseinatzeko eta aplikatzeko behar dituzun tresnak eman nahi dizkizugu, PBI-ren teoria adibide praktiko eta errealistekin konbinatuz. Ikas-egoeren teoria, abstraktu izateari utzi eta zuretzat zerbait erreal eta benetakoa izatera pasatuko da, zure ikasleen konpetentziak modu naturalean eta eraginkorrean garatzeko aukera emanez.

Formazio hau Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, irakaskuntza eraldatzeko bide irisgarri eta eraginkor gisa ikusteko gonbidapena da. Ikaskuntza testuinguratua, inklusiboa eta egungo erronketara egokitua dagoena.



Helburuak:



- Irakasleek Proiektuen Bidezko Ikaskuntzaren oinari teorikoak eta estrategikoak ulertuko eta beste metodologia batzuekin alderatuko dituzte. Benetako adibideak aztertu eta proiektu eraginkorrak diseinatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzea eta ikasgeletan praktikan jartzea da gure helburu nagusia.
- Irakasleek Proiektuen Bidezko Ikaskuntza hainbat hezkuntza testuingurutan aztertzen, aplikatzen eta egokitzen lortuko dute. Formazioa honen bidez, irakasleek martxan jartzeko prest egongo diren proiektuak diseinatu dituzte eta hauen ezaugarriak ebaluatuko dituzte ikaskuntza prozesuaren eraginkortasuna ziurtatuz.
- Irakasleen arteko lankidetzak sustatuko da, esperientziak trukatu, zalantzak argitu eta beraien hezkuntza-praktika sendotuz. Ikasgelan PBIren aplikazioa aberasteko eta hobetzeko, eskola komunitatearen profesionaletan oinarritzen ikasiko dute, hezkuntza-jardunbide egokiak errespetatuz.
- Irakasleen jarrera gogoetatsua, etikoa eta aldaketa metodologikora irekia bilatzen dugu. PBla modu eraginkorrean aplikatzeko behar diren konfiantza eta motibazioa piztu nahi dugu, ikaskuntza esanguratsua eta ikasleen garapen integrala lortzeko bidean aurrera egin dezagun.



Edukiak:

- **Proiektuen Bidezko ikaskuntzaren oinarriak (PBI):**
 - PBIren printzipio teorikoak eta pedagogikoak.
 - Beste hezkuntza-metodologia batzuekin alderatzea.
 - PBIren onurak ikaskuntza aktiborako eta konpetentzien garatzeko.
- **Proiektuen diseinua eta programazioa**
 - Proiektu eraginkor bat egituratzeko funtsezko elementuak.
 - Ikas-egoerak planifikatzeko eta antolatzekeo tresna praktikoak.
 - Galdera gidariak eta testuinguruan kokatutako jarduerak planifikatzeko estrategiak.
- **Ebaluazioa PBI:**
 - Ebaluazio hezigarrirako eta sumatiborako estrategiak.
 - Ebaluazio-tresnak aztertzea, hala nola portafolioa eta behaketa-egunerokoa.
 - Autoebaluazioa eta koebaluazioa.
- **Inklusioa eta gelaren kudeaketa PBI**
 - Proiektuak ikasle guztien beharretara egokitzeko estrategiak.
 - Irakasleen eta ikasleen rola prozesuan.
 - Espazioa, denbora eta talde-laneko dinamika kudeatzea.
- **Proiektuen azterketa eta adibide praktikoak:**
 - Hainbat testuingurutan aplikatutako benetako kasuak aztertzea.
 - Hausnarketa kritikoa eta adibideak ikasgelako errealitatera egokitzea.
 - Proiektuen garapena errazteko, baliabide teknologikoak txertatzea.

Nori zuzendua:

Haur/Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak, (DBH) Bigarren Hezkuntzako eta (LH) Lanbide Heziketako irakaslegoa.



Aurrez-aurreko saioak

- 12 orduko formazioa.
- Ibilbide sakona PBIren marko teorikoan zehar.
- 2 orduko saioa da gutxienekoa; hobe saio luzeagoak badira.
- Formazioan zehar irakasle bakoitzak bere hurrengo proiektu edo ikas-egoera izango denaren programazioa egingo du.
- Lan hau burutzeko, proposamen metodologiko honekin lotutako zenbait zehar lerro ere jorratuko dira: ebaluazioa, inklusioa, irakasle eta ikaslearen rola...

Formazio irekia

- Grabatutako saioak: Edukia zure erritmora eta nahi duzun alditan ikusteko aukera.
- Material osagarria: Landutako gaietan sakontzeko baliabide gehigarriak.
- Eskaintza modalitate desberdinak:
 - Ikastetxeak: Online mentoretza, aholkularitza eta galdera-erantzunen saioetarako sarbidea.
 - Banakakoa: Online saio gehigarriak gabe.
- Eskuragarritasuna eta prezioa: sarbide-denbora eta kostuak, modalitatearen arabera (banakakoa edo ikastetxea).
- Ikaskuntza autonomia: Ezin hobea aurrerapena modu independentean kudeatzeko.

Zuzeneko online saioak

Zoom aplikazioaren bidez emailearekin egiten den formazioa da. Aurrez aurreko formazioaren ordu kopuru eta eduki berberak izango ditu.



Emailea

Haurrak ekinean" liburuaren egilea. Lehen Hezkuntza eta PT maisua. 25 urte baino gehiagoko hezkuntza ibilbidea du egina. Bere lanak Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) du ardatz, ikasleen aniztasunera egokitutako hezkuntza inklusibo eta aktibo baten aldeko konpromisoa islatzen duena.

Hainbat ezaugarri eta testuingurutako eskoletan lan egin du, adin anitzeko taldeekin eta inklusioa eta parte-hartzea sustatzen duten metodologia aktiboak eta manipulatioak aplikatuz. Besteak beste, honako hauek dira bere espezialitateak: Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, ebaluazio-estrategiak eta inklusioa.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaria izan da Mikel. Bestalde, Arabako Berritzegunen ere egin du lan, aholkulari gisa eta irakasleen formazioan.

Honetaz gain, hitzaldi eta formazio ugaritan parte hartu du hizlari gisa, PBI, ebaluazioaren, inklusioaren eta metodologia aktiboen inguruan dituen ezagutzak partekatuz.



Kontaktua:

Mikel Fernández Sánchez

Maite Etxeberria Elkoro

proiektatu@gmail.com

Telf: 688 631 452

www.proiektatu.com